

PROBA ESPEZIFIKOA

2018ko PROBA

GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK





1.- Egin ezazu irudi honi buruzko iruzkin bat (2,5 puntu)



2.- Garatu gai hau. (3 puntu)

EUROPAR BATASUNAREN INSTITUZIOAK:


- EUROPAKO PARLAMENTUA
- EUROPAKO BATZORDEA
- EUROPAKO BANKU ZENTRALA

3.- Defini itzazu kontzeptu hauek: (hauta itzazu 3). (Guztira 1,5 puntu)

1. Deforestazioa
2. Biztanle-dentsitatea
3. Lugarria
4. Apartzeria
5. Hiri-funtzioa
6. Gentrifikazioa



4.- Egin ezazu iruzkin bat populazio-piramide honen ezaugarriei buruz (3 puntu)





EBAZPENA GEOGRAFIA (2018ko Maiatza)

- **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

- **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea, lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.

EBAZPEN ORIENTAGARRIA

1.-

Hezegune edo padura bat da. Lur-mihi bat da, gainazala beti edo aldizka urpean duena, eremua urez betetzen baita tarteka. Horregatik, lurzorua ase egiten da, eta oxigenorik gabe gelditzen da; hala, uretako eta lehorrekoen artean dagoen ekosistema hibrido bat sortzen da. Hezeguneeen barnean sartzen dira zenbait urmael, padura, albufera eta delta.

Hezeguneeek balio ekologiko handia dute, batez ere uretako hegazti migratzaileek habia egiteko erabiltzen dituztelako. Horretaz gainera, hezeguneeek klima-funtzio garrantzitsuak dituzte, hala nola uholdeei aurrea hartzea, kostako lerroa egonkortzea (kostaldean baldin badaude) eta lurpeko akuiferoak betetzea. Espainiako hezegune garrantzitsuenak hauek dira: Tablas de Daimiel-eko parke nazionala (Ciudad Real), Guadalquivirren haraneko padurak (Doñana) eta Ebroren deltako padurak.



2.-

EBren instituzioak erakunde politiko eta instituzionalak dira, zeinen esku uzten baitute estatu kideek beren botereen eta subiranotasunaren parte bat. Horren helburua da estatus gaindiko izaera duten organoek hartzea instituzioen zenbait erabaki eta jardun, eta haien borondatea estatu kide guztietan aplikatzea. Instituzioek bete beharreko arau eta prozedurak tratatu batzuetan ezarrita daude; tratatu horiek Kontseilu Europarrean eta gobernuen arteko konferentzietan negoziatuta daude, eta estatu bakoitzeko parlamentuek berretsita.

Europako Parlamentua (EP) parlamentu-biltzarra da. Bost urtean behin hautatzen dute Europar Batasuneko herritarrek europar hauteskundeetan. Zuzeneko sufragio unibertsal bidez munduan hautatzen den estatu anitzeko parlamentu bakarra da. Kotsultarako baino ez zen biltzar moduan sortu bazen ere, EPren legegintza-botereak nabarmen handitu ziren Maastrichteko Tratatuaz geroztik (1992). Gaur egun berak du, Kontseiluarekin batera, Europar Batasuneko legegintza-boterea. 751 diputatu ditu, herrialde bakoitzeko populazioaren arabera banatuak. Haren funtzio nagusiak hauek dira: aurrekontuak eta legeak onartzea, Europar Batasunaren Kontseiluaren eta Europako Batzordearen kontrola bermatzea eta nazioarteko akordioak berrirtea. Europako Parlamentuaren egoitza (Brusela).

Europako Batzordea (EB) Europar Batasunaren barneko botere betearazlea duen organoa da, baina legegintzan ere parte hartzen du. Instituzio politikoki independentea da, eta Batasunaren interesak oro har ordezkatzen eta defendatzen ditu. Berak proposatzen ditu legeak, politikak eta ekintza-programak, eta berari dagokio Europako Parlamentuaren eta Europar Batasuneko Kontseiluaren erabakiak aplikatzea. Batzordeak proposatzen ditu Europar Batasunaren lege berriak, baina legegintza-ganberei (Parlamentuari eta Kontseiluari) dagokie legeak egitea. Hogei kidez osatuta dago (komisarioak), eta hiru eskumen nagusi ditu: Europar Batasunaren politikaren ekimena, Europar Batasuneko zuzenbidearen aplikazioa kontrolatzea eta Europar Batasunaren izenean negoziatzea nazioartean.

Europako Banku Zentrala (EBZ) Batasunaren diru-politikaren arduraduna da. Diru bakarraren, euroaren, banku zentrala da. Moneta-jaulkipena eta horretarako betebeharrak kontrolatzeaz gainera, kanbio-politika eta interes-tipoen oszilazioak erabakitzen ditu, diru-politikaren arloko beste eskumen batzuez gainera. Politika horiek helburu nagusi bat dute: inflazioa kontrolatuz, prezioen egonkortasuna zaintzea.



3.-

1. Deforestazioa

Gizakiaren presioaren eta kutsaduraren ondorioz lurralde batek bere basoak galtzea dakarren prozesua.

2. Biztanle-dentsitatea

Zona baten biztanleriaren eta zona horren hedaduraren arteko erlazioa. Kilometro karratuko biztanletan adierazi ohi da, edo, hiri-eremuei dagozkien azterketak direnean, hektareako biztanletan.

3. Lugorria

Nekazaritzarako lurrak leheneratzeko baliatzen den nekazaritza-teknika. Lurra urte batzuetan landu gabe uztean datza.

4. Apartzeria

Lurraren zeharkako ustiapena antolatzeko modua: lur-jabeak nekazari edo apartzero bati lagatzen dio lurra; hark hitzartu den moduan lantzen du, eta uztaren portzentaje batez ordaintzen dio jabeari.

5. Hiri-funtzioa

Hiri baten bizimodua eta izateko arrazoia definitzen duen jarduera nagusia. Merkataritzaren arlokoa izan daiteke, edo industrial, militarra, kulturala, bizitegi-izaerakoa, administratiboa...

6. Gentrifikazioa

Hiri-eraldaketa prozesu bat da, berekin dakarrena sektore edo auzo hondatu eta pobretu bateko jatorrizko biztanleak erosahalten handiagoko beste biztanle batzuek handik bidaltzea pixkanaka; prozesu horren ondorioz, berritu egiten da auzoa.

4.-

Espainiako gaur egungo piramideak egitura demografiko erregresibo bat islatzen du, oinarrian azpijan nabarmena duena eta adin handiko biztanle-kohorteetan handitzeko joera duena.

Zahartze demografiko horrek, bestalde, emakumezkoen portzentajea handitzea dakar, batez ere adinekoen artean, heriotza-tasa handiagoa baita gizonezkoetan. Bi fenomenoak, biztanleria zahartzea eta feminizatzea, immigrazioaren handitzeak arindu zituen, partez behintzat, 2011 arte, batez ere pertsona gazteak (20 eta 40 urte bitartekoak, nagusiki) eta gizonezkoak iritsi baitziren.



Joan den mendeko 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, nabaritu zen piramidearen oinarriko haur kopuruaren jaitsiera pixka bat moteldu zela, eta XXI. mendeko lehen urte hauetan berreskuratze txiki bat gertatu da.

0 eta 4 urte bitarteko haurren kopurua igo egin zen, urte horietan pertsona gehiago izan zirelako ugaltzeko adinean. Nabarmena da joera-aldaketa horretan atzerriko biztanleen parte-hartzea. Batetik, immigranteek atzerrian jaiotako haurrak ekarri zituzten, eta, Espainian erroldatu ondoren, haur horiek piramideko biztanle-kohorte gazteenak elikatu zituzten. Bestetik, immigranteen profil nagusiak guraso izateko biztanle taldeen barnean kokatzen zituen; eta, azkenik, haien ugalkortasun-tasa Espainiako biztanleena baino handiagoa zen (eta handiagoa da oraindik).

Espainiako biztanleria zahartuz joan da XX. mendean eta XXI. mendean hasieran. Hori da biztanleriak izan duen aldaketa nagusietako bat. 1900ean, ehun biztanleko bost bakarrik ziren 65 urtetik gorakoak; 2015ean, berriz, zifra hori % 18ra iritsi zen (8,5 milioi pertsona), eta haien ia heren bat 80 urtetik gorakoa zen. Zahartze hori bizia izan da joan den mendeko bigarren erdian, baina batez ere azken 30 urteotan, haietan bikoiztu egin baita 65 urtetik gorako pertsonen kopurua.

Hiru faktoreen konbinazioak ekarri du biztanleriaren zahartze kezkarri hori:

- Bizi-itxaropenaren igoera
- Ugalkortasunaren jaitsiera
- Migrazio-mugimenduen eragina

Espainiako populazioaren zahartzeak berekin dakar zenbait arazo demografiko eta sozioekonomiko. Ez dira gure estatuko arazoak bakarrik, baizik eta Europar Batasunekoak oro har, eta gai hori etorkizuneko erronka nagusietakotzat jotzen du Europar Batasunak.

Zahartzearen ondorioen artean, hauek dira aipatzekoak:

- Heriotza-tasaren igoera eta biztanleriaren jaitsiera
- Ugaltzeko adinean dauden kohorteetan pertsona gutxi izatea
- Lan-merkatuaren eskariari erantzuteko eskulana falta izatea ekar dezake
- Ekonomikoki mendeko diren biztanleak gero eta gehiago izatea
- Eta abar.